

Hitzok Aintzane Atelak eta Koro Navarrok *Euskara-euskara LUR Hiztegi-rako* prestatu dituztenetatik hartu ditut... **Orobat** sartu ditut gure literatura tradizioko hainbat erdal hitz, zaharkituak zirenak eta gaur egun berriro askotan premiarik gabe, erabiltzen hasi direnak.

Ibon Sarasola
Euskal Hiztegia
1996

HALABER

OROBAT

BEREBAT

ERE partikula bezala, emendiozko lokailuak ditugu *halaber, orobat eta berebat*. Hots, aurreko perpausean esandakoari zer edo zer gaineratzeko erabiltzen dira. Baina, ERE ez bezala, lokailuok ez dira nahitaez informazio berriaren segidan jarri behar. Joskera askeagoa dute, eta dagokien osagaiaren aurretik doaz sarritan. "Askatasun" hori dela eta, aukerakoak dira ERE-rekin ondo konpontzen diren joskeretarako, hala nola osagai berria luzea denerako.

Gure adibidean, aditzaren osteko guztia da informazio berria.

Orobat sartu ditut [gure literatura tradizioko hainbat erdal hitz, zaharkituak zirenak eta gaur egun berriro askotan premiarik gabe, erabiltzen hasi direnak].

Oso korapilatsua izango litzateke kasu horretan ERE erabiltzea.

Hona emendiozko lokailu horien erabileraren zenbait adibide:

- Eta egia da orain alegera nagoela, baina egia da, **halaber**, [leher kaka egina sentitzen naizela].
- Eta eraman zituzten, **halaber**, [hiruzpalau liburu, nik Salamancatik ekarriak]
- Badakit **halaber** [ezen, ni itsuski engainatu izana ez askietsirik, beldurrik ez duzula karia horretara harrotzeko, zeure buruaz arras bozkariatzeko...]
- Ikusten da, **halaber**, [diskurtsoaren deskribapen hau pentsamenduaren historiari kontra-jartzen zaiola].
- Landu den diskurtsoa, **halaber**, [beste diskurtso batzuekin analogia-harreman batean egon daiteke]
- Eredu horrek agintzen du emakumeek orgasmoa behar den moduan nola lortu behar duten, eta, **halaber**, [fisiologikoki orgasmo desberdinak daudela dio].



Hona emendiozko lokailu horien erabileraren zenbait adibide:

- Esaterako, ezetz esateko egiten diren hots batzuk klikak izaten dira, eta, **halaber**, [zerbaitekiko etsipena edo ezina adierazten duena eta haurrei debekua edo kontuz ibili beharra adierazten diena].
- Casasek, **halaber**, [agerian utzi izan du urtegiaren proiektuaren inguruan aurkeztu dituzten txostenetan urtegiak zer arrisku duen ez dutela behar bezala baloratu eta aurreikusi].
- Ordu gutxiren buruan berri eta gaitasun berriz beterik sentitu nintzen, gaitz luzetik garbitu eta sendaturik azkenean, behingoz prest bizitzan pozik eta kementsu murgiltzeko; **halaber** sendatua zen, bat-batean, [inguratzen ninduen mundua].
- Ulisesek gerrikoa lotu zuen, eta haren izter handi ederrak agerian geratu ziren; bai, **halaber**, [beso lodiak eta bizkar zabala].

Hona emendiozko lokailu horien erabileraren zenbait adibide:

- Jaso nahi nuen hizkera hibridoa denez, **orobat** hibridoa da [baliatu behar izan dudana grafia].
- ...baina etsigarria da **orobat** [dena jakintza horretara mugatzea]...
- Ibarrera jaitea deserosoa zen, eta niretzat **orobat** [zuhurgabea].
- Hain zuzen ere, sofa berria oparitu nien gurasoei, eta **orobat** [koloretako telebista].
- Gaztea zen apaiza, jardunzalea; segituan deitu zien gazteei, jolastoki bat antolatzeke, eta **orobat** [liburutegi bat eta hitzaldietarako nahiz bileretarako areto bat prestatzeko, guztia apaizetxe handiaren soto zabalean].
- Eta **orobat** ikusia nuen [usoen hegada aire geldia hausten], eguna soinetik kentzen ari balira bezala astinduz hegalak.
- Informazio hau konplexuagoa da, jakina, baina [aurrekoaren osagarri behar-beharrezkoa] da **orobat**.

Bestalde, lokailu hauek, ERE partikula ez bezala, aditz soilaren aurrean joan daitezke, aditza sintetikoa izanik ere (dator, dago...).

- Zorraren krisiak nazioarteko zuzeneko inbertsioen sarrera moteldu zuen, lehen unean, herrialde horietan, baina **orobat ekarri zuen** dibisa-eskasiari eta inbertsio lokalaren beherakada izugarriari aurre egin behar zioten gobernuen jarrera aldaketa ere.
- Bizia **halaber gal daiteke** herriaren askatzeko, familia zenbaitzuk hargatik, ideologiaren txapa kendu eta, galda lezake beren haurra zergatik sakrifikatua izan den.
- Peter Medawar-en hitzetan, posible denaren artetzat jotzen badugu politika, **halaber esan dezakegu** soluzioren bat duenaren artea dela ikerkuntza.
- **Orobat** frogatu zuen ezin triangelu angeluzuzenek ez duela azaleratzat karratu bat.
- **Orobat** gertatzen da une jakin batean egindako aurreikuspenetariko batzuk ikerketaren urrats berri batek gezurtatzea.



- "Esaldi honek hogeita hamalau letra ditu" dioenak egia dio, baina **orobat dio** egia "esaldi honek ez ditu hogeita hamalau letra" dioenak ere.
- Izan ere, ugalketa eta sexualitatea, izaki bizien bihotz-bihotzean instalatuak egoteaz gainera, **orobat daude** kokaturik, giza espeziean, kultura izadiarekin uztartzen den puntu horretantxe.
- Hegemoniazko lekua izateak, hasteko, kostu militarra eta politikoa ekarri ohi du, alegia, indarrean dagoen ordenaren defentsaren eta ordena horri eutsi beharraren kostua, eta **orobat dakar** estatu aliatuen finantzak mantendu beharra...
- Eta **orobat zaigu** deseroso Vercors-en *Animalia naturagabetuak* eleberria.

Fitxa hau prestatzeko baliatu ditugun adibide guztiak
 "Ereduzko prosa gaur" corpusetik jaso ditugu.

